

Pantxi Matxain Etxaniz

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Añorga Txikin jaio zen. Aita usurbildarra zuen eta ama Añorgako Moriane baserrikoa. Txoko Ederren bizi ziren. Bi senide ziren, anaia eta bera. Eskola publikora joan zen, baina denbora gutxian. Hamar urte zituenean hil zitzaion ama, eta etxearen kargu egin zen gazte-gaztetatik. Amonarekin joaten zen San Martin plazara, esnea saltzera. Aspacen ibili zen lanean urte askoan, umeei laguntzen.

Zintak

DON-100

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-12
- **Iraupena:** 114 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Añorga Txikiko tabernak

- **Erref:** DON-100/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Narzisenean taberna txiki bat zegoen. Geltokirako bidean beste kantina bat ere bazegoen. Porroiarekin egoten ziren han gizonak. Emakumerik ez.

2. Ijitoak Belengo errebueltan

- **Erref:** DON-100/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Belengo errebuelta. Inpernua. Amak esaten zuena: ijitoak etortzen zirela, otsoekin, dirua biltzera. Trena beti ezagutu du, Pamplonica esaten ziotena.

3. Gerra hasi zenean, Manttalingo neska hil zuten

- **Erref:** DON-100/009
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Taberna zegoen Maizter-enean, eta hango gizona fusilatu egin zuten. Gerra nola hasi zen kontatzen du. Manttalingo neska nola hil zuten, eliza aurrean. Oriamendira joaten ziren maiatzaren lehenean, gerra hasi aurretik. Alemanek hiru urteko lehengusua harrapatu zuten autoarekin, eta hil.

Transkripzioa

-Hor taberna zan oan daon etxi hortan. Taberna zan, ta horko gizona afusilatu in zuen /intzuen/, eta Mendizorrotzen billatu zuen. Hilda, handikan sei o zortzi hillebetea o, horko gizona ´re. Nik hoi ezautu nun.

-Bai, zuk, gerra hasi zanian... neska... neskaitilla.

-Bai, baiño ni goatzen naiz nola hasi zan gerra. Guk hor saastiya giñun, etxea baiño beraxego saastiya giñun. Eta gu amakin ta /da/, umiak. Ama ta izeba ta, zea, jai arratsalde batian, gauen, eta... ikusi giñun kotxe txiki, baiño beltzak, danak beltzak eta pistolakin ta /da/. "Zer dek hau? Zer dek?", gure gurasuak, "baiño hau zer da?". Eta ahal gendun bezela pasa giñan gue etxea. Eta geo jakindu gendun gerra hasi zala, ta Añorgako elizan, hurrungo egunian jakindu gendun... Lidaberri ez da /ezta/... Manttalingo neska hil zuela /hiltzuela/. Geldituazi kotxia, ta atzetik, "o sea que"... ez zuela gelditu, ez zian kontuatuko! Eske gerra hola hasi zan! Haik, jendi harrekin bildurrak... baiño zer ze... Ta elizako aurrian hil zuen / hiltzuen/.

-Ez zalako gelditu?

-Ez zalako gelditu. Atzetik tirua botata...

-A, bai?

-Eta "aizu, zea... Manttalingo neska hil duela! Manttalingo neska".

Hurrungo eunian esaten zuen. Gu umiak, baiño goatzen gea. Geo, goatzen naiz ´e bai, e... maietzian aurrenien o hola juten giñan danak gure... nik ez dakit ikurriña o zer izango giñun, baiño Oriamendia. Ezautzen dezu / ezautzezu/ Oriamendi?

-Bai.

-Hor mendia, eta juten giñan "arrozconleche"-kin. "Arroz con leche" jarri, ta famili guzik juten giñan horrea. Festen bat izango zan. "Uno de mayo" edo ez takit ze ze esaten zuen.

-Hori, gerra hasi aurretik?

-Gerra hasi aurretik, bai. Bai. Eta gero goatzen naiz ´e nola sartu zian e... honea "los españoles" o esaten ziyuena. Gu biri hontan, eta guri hola iten eakutsi ziuten, eta gero haik sartu zian, hemen tropak bazijuzten, ta /da/ eskua hola jartzen, eta guri bestia altxatzen zitziun, eta bueno. Haik `e ikusi giñun pasatzen. Nola sartu zian alemanak goatzen naiz. Ta alemanak kotxian sartu zian, eta nere lehengusuak, hiru urtekin... hil in zuen. Krixton abaillak eamatzen zituen ta /da/ hiru urteko umia, bai.

-Kotxiakin harrapatuta?

-Harrapatuta, bai. Ta birea atea zan umia, birea o... ba ez, espaloiyian zeon.

-Eta hori hemen, hemen gertatu zan?

-Hamentxe bertan.

-Hamentxe bertan?

-Bai, bai, Txokoederren aurrian.

-Joe...

-Danak Txokoeder aurrian hala genden beira, eta ze gertatu zan, ta /da/ umia hilla!

4. Gerra hastean, baserrira

- **Erref:** DON-100/011
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasi zenean, baserrira joan ziren denak. Negarrez bueltatu zen eskolatik. Aita eraman zuten gau batean, baina gero libre utzi zuten.

Transkripzioa

-Ez, hemendikan gu basarria danok. Gure etxeak. Gu familikuak eta familikuak ez giñanak ´e bai. Eta gure aittak esan zun /esantzun/: “Bueno, hil, hiltzen bagea, danok alkarrekin hilko gea, eta hemen gelditu behar deu”. Zeatikan ni nearrez etorri emen nitzan etxea, eskolatik: “Danak hiltzen dituela /hiltzeituela/! Ama, danak hiltzen dituela /hiltzeituela/ ta jun behar deula, jun behar deula hemendik!”. Eta bueno, hala gelditu giñan, ta gaur arte. Gu ez giñan maitu. Aitta eaman zuen gau batian, eta ahal zun /altzun/ bezela esaten ziyon, e aber, bi ume txiki zitula, ta ama hil berriya ta nola eamaten zuen, ta /da/: ba haik obligatu in zuela /intzuela/, ta... bueno, goizaldea ekarri zuen ostea, e. Aitta. Gue aitta ezerta sekula sartu, ezertan, ezertan. Ta ekarri zuen.

5. Inpernura dantzara, amarekin

- **Erref:** DON-100/014
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:13:26. **Bukatu:** 00:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Amak eta osabak dantzariak ekartzen zituzten. Amari dantza egitea gustatzen zitzaion, eta Inpernuko tabernara joaten ziren. Lokotx-apustuan ibiltzen ziren mutilak. Soinu-jotzailea.</p>

6. Bizikletan ibiltzen zen

- **Erref:** DON-100/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:16:03. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako jolasak. Arboletara igo, bizikleta... mutilekin ibiltzen zen. Bizikleta 18 urterekin izan zuen, lehenago ez. Esneak partitzen eta pentsua ekartzen ere bizikletan. Behia izaten zuten. Etxean ikasi zuen irakurtzen eta idazten.

Transkripzioa

-Eta zuk umetan e... zure umetako jolasak-eta zeintzuk ziran?

-Uuu, ni mutillak bezela nitzan, e. Arboleta iyo, bizikleta... bizikleta asko gustatu zait. Bizikletan asko ibili naiz, mutillak bezela, e. Bueno, anaiya ´re karreratan-ta ibiltzen zan, ta haikin juten nitzan ni, e.

-A, bai?

-Bai, bai, bizikletan haikin juten nitzan. [...] asko gauza, baiño...

-Orduan bazenun bizikleta ´re.

-Bai, bai, bai. Bai, baiño bizikleta banun, baiño igual e ba... hemezortzi urte o... Bai.

-Hemezortzi urtekin?

-Bai, lenao ez, e.

-Klaro...

-Lenao ez.

-Garestiya izango zan bizikleta eukitzia...

-Bai, bai. Bai, eozeiñek ez zun izaten, baiña... ez takit nolaz, baiño nik banun bizikleta. Bueno, ta gero bizikleta banun, baiño "carga y descarga" iteko ere bai, e. Esnia partitzen ibiltzen nitzan bizikletan, geo pentsua ekarri beharra baldin bazan, zeatikan basarri erdi o hola bizi giñan, eta pentsua ekarri behar... ere bai bizikletan ekartzen nun nik, e!

-A, bai? Nondik?

-E, Antiguatik. Benta Berritik. Bai.

-Orduan animaliyak-eta...

-Bai, behiya eta txahala eukitzen giñun. Eta ni behiya jezten-ta /da/ ikasiya naiz, e. Geo lanea jun bihar izandu nun, baiña bai.

-Orduan umetatik lanian.

-Ba ume-umetatik. Ume-umetatik lanian. Nik... letzen ta /da/ zean ikasi nun etxian, zeatikan esaten ziaten: "Es que tienes que hacer". Eta gabian hasten nitzan, eta gelditu baik eta ordun ikasi nun nik. Etxian, al nun bezela.

7. Maistrak zigortuta

- **Erref:** DON-100/017
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:19:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Eskolako pasadizo bat. Maistrak zigortu zueneko. Eskolara joateari utzi zion.</p>

Transkripzioa

-Ta behin batian nik ez takit tintakin o bata zuriya zikindu nion aldamenekuai. Ta esan zian: "Ponte ahí de rodillas mirando a la pared, y te voy a poner cuatro libros en cada...". Ume bati in bihar zaiyo, ama hil

berriya! “Te voy a poner cuatro libros en cada brazo, y como se te caigan vas a recibir tantas tortas... como, como libros tienes en las manos”. Noski, neri eroi! Liburua.

-Honbre, lau asko da...

-Ta bildurra nun, ta /da/ zakan mahaiya, ta mahaiyan bara bat euki zun, eta ematen zituen hankian. Eta nei, ekusi nunian liburuak bazijuaztela, jun nitzan bere mahaiyean, ta hartu niyon makilla ta hua aurretik, eta ni atzetik, makillakin. Alde in nun, ta akabo! Gehiyo ez nitzan jun eskola.

8. Euskara debekatuta eskolan

- **Erref:** DON-100/019
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Etxean matrailekoa ematen zieten erdaraz egiteagatik eta eskolan alderantziz, ezin euskaraz egin. Ez du eskolako oroitzapen onik, eta ezta Rezolako nagusiarena ere. Langileen umeei bai, baina baserritarrenei ez ei zieten ezer ematen.

Transkripzioa

-Eta gero euskeraz hitz eiten ziñun, zea, etxian. Jun, ta euskera, o erderaz ez genekiun. Eta “o sea que” matrailekoa etxian, erderaz hitz eiten giñunen. Hara jun, ta euskeraz... aitzen giñalako´re bai! Bandera jartzia, ze uste dezu /ustezu/? Basarritarrai dana esaten ziun. “Ala, poner la bandera en el mastil!”.

-Eta zuek jarri behar.

-Guk jarri bihar. Bai.

-Orduan zure eskolako oroitzapenak ez dia bate onak.

-Ez, ez, ez. Ezta, ezta pentsatu´re! Geo, Rezola. Rezola bere... bere jendiai bai, baiño gu juten giñan “o sea que” erregetan ta /da/ hola merienda ematen ziyuen ta /da/ erregalik umieiri, eta gu, zenbat ume izango giñan? Hamabi-hamalau, hemen basarrikuak, beste Etxeberriko bazuk... ez takit hamabi o hamalau... Eta txokolatia eta ogiya ematen ziyuen, eta gu han holaxe, gosiak amorratzen. Eta ezta, ezta meriendik´e ez ziguten / etziguten/ ematen, ez giñalako obreruen umiak.

-A bai, e?

-Bai, bai, bai. Rezola bere, bere jendientzako ona izango zan, baiño bestela...

-Orduan diferentziyak...

-Bai, bai, bai.

9. Xaboa, labaderoak eta erreka

- **Erref:** DON-100/021
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Aitak Lizarruti xaboi fabrikan egiten zuen lana. Hilean behin xaboia ematen zieten. Errekan garbitzen zuten arropa. Rezolak labaderoa egin zuen eta Txoko Ederren ere jarri zuten, etxean. Aingirak harrapatzen zituzten errekan, sardexkarekin. Berjel erreka zen lehen, eta ez Atotxa erreka.

10. Emakumeek askatasun gutxi

- **Erref:** DON-100/022
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Errekan, aingirak eta ezkailuak. Sarearen orde, zaku puskekin ibiltzen ziren harrapatzen. Bainatu ere egiten ziren. Gero Ondarretara joaten hasi zen, bizikletan. Hondartzan. Bera liberala zen, baina gehienak ez. Kritikatu egiten zuten.

Transkripzioa

-Eta errekan aingirak, eta beste arrairik bazeon?

-Eskaluk.

-Eskailuk?

-Bai.

-Eta hoiyek nola harrapatzen zian?

-Eskalluk? Sariakin.

-Sariakin?

-Bai. Sariakin, baiño sareik´e ez giñun eta zaku puskek jarri alanbretan, ta / da/ ahal giñun bezela! Harrapatzen giñun. Eta prejituta oso goxuak zian´e bai.

-Eta zuek baiñatu-eta iten ziñaten, errekan?

-Bai. Aurreaxio jun, eta gu umiak, baiño jarri giñun ya, harriyak-eta jarri giñun eta ya honeaiño ura alleatzen ze... hara juten giñan! Geo bai, geo haundiya in nitzenian... Edadia giñunian Ondarreta ni! Bizikletan!

-Bai?

-Asko gustatzen zizaian playa. Asko.

-Eta hemen errekan, e, normalian neskak-eta ez zian hainbeste baiñatuko... igual mutillak gehiago.

-Ez, ez. Neskak, hemen neskak izandu zian... festatan´e kortinatik beidatu ta... e, ni izandu naiz liberala, baiño gue aita zan seriyua, eta attai disgustoik ez ematetik zenbat aldiz esaten niyon jendiai: "Decirmelo a mí, estais fastidiando a una tercera persona. Decirme a mí lo que tengais que decir. Si yo no... Si mi vida es mía y yo puedo hacer... yo, entre que no haga daño a nadie...". Baiña alperrik. Alperrik.

-Orduan bazeuden geizki ikusitako gauza batzuk, ezta?

-Uuuuu. Hemen?
-Emakumiak tabernara sartzia eta...
-Hemen? Ez dakizu /eztakizu/! Bueno, bueno! Hau izandu da, Añorga izandu da... dana, esaten ituten /esateituten/ guziya gutxi!
-Eta ze, beste ze zeon debekatuta edo bueno, geizki ikusiya, emakumiak itia edo neska gaztiak? Mutillekin ibiltzia...
-Eta gauian etortzen baziñan beandu o... mutillakin ikusten bazizuen. Eta nik ez dakit, gauza bastante. Eta ez baldin bazizuen ikusten ´e bai! Zu juten baziñan... Bueno, bueno, bueno. Ta ni holakua izandu naiz. Ta, ta... baiño gue aitta zan oso seriyua.
-Seriyua.
-Oso seriyua.
-Orduko gizonak seriyuak izango zian asko...
-Bai, batzuk. Batzuk. Beste atzuk "unos golfantes", baiña... "golfantes", baiño beste jendiakin, e, beren etxekuekin ez, beren etxekuan ondo gordeta, hori bai. Hori bai.

11. Rezolako langileak ez zirenak, baztertuta

- **Erref:** DON-100/025
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Gizon batek irratia jokatu zuen kartetan. Mutil bat nola atxilotu zuten, irrati hura lapurtu izana leporatuta. Añorga Txiki "errepublika independentea" zela dio. Dutxa publikoak erabiltzen zituzten, baina Jolas Etxetik bidali egin zituzten behin baino gehiagotan. Etxean argi eskasa zuten, Urumeakoa. Gerra denboran, Rezolatik hartu zuten argia, eta gero kendu egin zieten.</p>

12. Argirik eta urik ez zegoen garaia

- **Erref:** DON-100/027
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:31:23. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Kandelak eta kinkeak erabiltzen zituzten, argirik ez zutenean. Amonaren etxean ez zegoen urik; iturrira joaten ziren ur bila, aldapan behera, marmitarekin. Arropa garbitzera ere hara joaten ziren.

13. Apaizak neska bat airean bota zueneko

- **Erref:** DON-100/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:34:44. **Bukatu:** 00:36:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Añorgako elizara joaten zen dotrinara eta mezetara ere bai. Apaizak neska bat nola bota zuen lurrera, matrailekoa emanda.

14. Liberala, bere garairako

- **Erref:** DON-100/032
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:40:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Behatzarekin seinalatzen zuten auzoan, hondartzara joaten zelako, bizikletan ibiltzen zelako, gona motza janzten zuelako... baina beti aitari begira egoten zen. Antiguako lagunak zituen.

Transkripzioa

-Eta ni nitzan hola, e. Bihatzakin apuntatzeko. Playa juten nitzalako, bizikletan ibiltzen nitzalako, ez dakit ze iten nulako... Nik, nik pentsatzen nun: zeni iten zionik gaitz honekin? Ni holakua naiz ta.

-Iñorri ez, baiña... beraiyek ezin zuten in ta /da/... berdiña.

-Bai.

-Inbidiya ere bai.

-Bai, in lezaken nik iten nuna.

-Bai, baiña geizki ikusiya nola zeon, ba ez zuten ingo.

-Nik iten nuna.

-Eta zu playara ze juten ziñan, zu bakarrik bizikletan?

-A, hemendik bai! Eske ni hemendikan hola, e, bihetzekin. Behin batian hor neon, ta /da/ zea... monja juteko eondu zala ta gero esposatu zan ta /da/ ya... Eta paradan, ta /da/ ni gonak oan eamaten dia honeaiño?

-Bai.

-Ba ni harekin. Ordun´e bai.

-Gona motzakin zu?

-Gona motzakin, ta txaketa bat, eta atea zan hoi parada ta ni´re parada. "Quitate de mi lau, e! Quitate de al lau mio, e! Porque cómo se nota que no tienes madre! Con esa falda y que... una sinvergüenza!", esan zian / esantzian/.

-Orduan iñor ez zan ikusiko, hola gona motzakin ta /da/.

-Bai, besten bat´re ibiliko zan, baiño... Nei esaten baziaten: "Oye, mira, hay que llevar esto pegau con cola", eta jantzi ingo nuke hola, eta martxa iten nun.

-Zu, orduan, libria izan zea beti.

-Bai, beti. Beti. Beti. Beti, baiño beti aittai beira ni, e! Ni aittan kontua beti. Ume-umia nitzala. Bai, baiño liberal bai.

-Eta gero han hondartzan-ta beste lagun batzuekin-edo juntatuko ziñan.

-Bai, bai, beti nik launak hangiak izandu itut, e. Antiguako launak izan...

-Antiguakoak.
-Bai, beti-beti. Bai.
-Eta haiyek liberalaguak-edo hemenguak baiño? Izango ziran...
-Bai, bai. Hemen bizi zian... Rezola zerk esaten zun. Eta nola zian obreruak, ba... ez dakit... nik ez dakit ze pasatzen zan. Ez dakit ze pasatzen zan, baiño nik beti izandu itut launak hanguak. Eta liberalaguak e... guk ez giñun ezer gaizki iten. Ni goatzen naiz berbeneta-ta jun eta ni bizikletakin juten nitzan, eta hain etxian bizikleta utzi, dantzana-ta /da/ ibilli eta geo ni bizikletan etortzen nitzan etxea. Ze gaixki iten nun?
-Ezer ez. Eta berandu arte ibiltzen ziñan, ala...
-Bai, bai. Bueno, berandu arte... hamabi t´erdik... e, baiño ordun berandu zan, oso berandu zan.
-Beatzitako etxian egon beharko zian beste batzuk eta...
-Bai. O bate atea baik. Bai.
-Eta hori asteburutan?
-Bai, o sansebastianetan o bai... bai. Ta Añorgako festetan ´e juten giñan Añorga, ta ordun ´e beiratzen ziguten bitxo raruak bezela.

15. Dantzara Igeldora eta Hernanira

- **Erref:** DON-100/036
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:44:52. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hernanira eta Igeldora joaten zen dantzara, Antiguako lagunekin. Bizikletan joaten zen haraino. Igeldoko giroa. Madrildar asko ibiltzen zen han udan.

16. Grisen aurrean korrika

- **Erref:** DON-100/038
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:50:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Takoeikin ibiltzen zen Igeldon, baina barrikadak jartzen ere bai, eta grisen aurrean korrika. Karmelitetan ezkutatu ziren behin. Lagun batzuk kartzelara sartzen zituzten, Franco etortzen zen aldiro.

17. Aieteko lehengusuaren ibilerak

- **Erref:** DON-100/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:50:49. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Bere lehengusu baten kontuak, Aieteko jauregiaren parean bizi zena; nola egin zuen ihes. Haren anaia tokalari famatua zen, Manuel Matxain.

18. Toka jokoa eta sagardoa

- **Erref:** DON-100/041
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:53:04. **Bukatu:** 00:55:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Tokan asko jokatzen zen lehen. Lokotx-apustua egiten zuten Inpernuan, eta toka ere bazegoen. Bolatokia ere bazegoen. Sagardoa etxe guztietan zegoen; etxean egiten zuten sagardoa. Pitarra edaten zen egunero. Sagardo onak eta hobeak zeuden, igandetarako. Zizarra.</p>

19. Baratzeko kontuak, esnea eta fruta

- **Erref:** DON-100/042
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:59:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baratzean zer zuten: artua, babarruna, porruak... Aitak ilargia kontuan izaten zuen. Igandetan meta egitea tokatzen zen. San Martinera joaten ziren barazkiekin eta frutarekin, eta etxez etxe esnea partitzen zuen amonarekin. Arbolak nola zaintzen zituzten.

20. Hanka hutsik gustura

- **Erref:** DON-100/043
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Idirik ez zuten baserrian. Behiak lotzen zituzten uztarrarian. Askotan joaten zen hara, umetan. Hanka hutsik ibiltzen zen beti. Iruditzen zaio horrenbesteko hotzik ez zuela egiten. Lerarekin ibiltzen ziren, eta karroarekin; aitonak Continental hoteleko zaborra ekartzen zuen, eta belarretarako ere erabiltzen zuen.

21. Xestera eta "burutea"

- **Erref:** DON-100/044
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:03:10. **Bukatu:** 01:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Otarra bizkarrean. "Xesterak" eta buru gaineko "burutea". Marmitarik ez zen eramaten hala. Amona San Martinerraino oinez joaten zen, otarra buruan hartuta.

22. Txerria hil, eta ezkutatu

- **Erref:** DON-100/046
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:05:59. **Bukatu:** 01:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Añorgako ekonomatora ez ziren asko joaten; egunero joaten ziren tratuarekin Donostiara, eta handik ekartzen zuten beharrezkoa. Txerria hiltzen zuten, eta gerra garaian ezkutatu egiten zuten. Txekorrak ere hiltzen ziren. Baserrian fruta asko zuten, baina babarruna gutxi. Aitak txerria hiltzen ikasi zuen. Odolkiak egiten zituzten, txorizorik ez.</p>

23. Odolkiak egiten eta partitzen

- **Erref:** DON-100/048
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:09:42. **Bukatu:** 01:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Odolkiak egiteko espezieak erosi egiten ziren. Hesteak nola garbitzen zituzten, errekan. Inbutuarekin betetzen zituzten hesteak. Txerrimunik egiten zuten, odolkiak partitu. Apaizari ez. Norbait hiltzen zenean, abisua ematera joaten ziren baserriz baserri. Eta propina ematen zieten edo gailetak.</p>

24. San Juan sua eta kantak

- **Erref:** DON-100/050
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:12:51. **Bukatu:** 01:14:39

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan sua egiten zuten, etxe aurrean. Ingurukoak elkartzen ziren. Aterik zabaltzen ez zutenei zer kantatzen zieten. Oilaskoak, txorizoa... ematen zuten, gauean.

25. 'Amoña pottaje'

- **Erref:** DON-100/052
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:16:03. **Bukatu:** 01:17:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Etxeetako ateak irekita egoten zen lehen. Amoña potaje deitzen zioten andrea ibiltzen zen auzoan, eta behin etxe barruan topatu zuten lo. Mutrikuarra izan behar zuen.

26. Autobusean eta zaldi-karroan

- **Erref:** DON-100/054
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:17:40. **Bukatu:** 01:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Donostiara joateko autobusa hartzen zuten, baina trena ez zen erabiltzen. Zaldi-karroan joaten zirenean Benta Berriko alhondigan ordaindu behar izaten zuten.

27. Sendabelarrak

- **Erref:** DON-100/058
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Sendabelarrak. Aitak denak ezagutzen zituen. Pasmu belarra, gibel belarra, osinak, berbena... Itzalean lehortzen zituen.

28. Euskara eta kanpotarrak

- **Erref:** DON-100/062
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:27:25. **Bukatu:** 01:29:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Auzoan euskaraz egiten zen baserrietan. Tolosatik aurrera eta Irunen euskara diferentea dela uste du. Bertako euskara iruditzen zaio polita. Gerra ondoren etorri ziren kanpotik, baina Rezolan ez zituzten kanpotar asko hartu.

29. Arropa egitera, jostunarengana

- **Erref:** DON-100/065
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:31:15. **Bukatu:** 01:32:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Etkez etxe ibiltzen ziren saltzaileak: hariak, oihalak... Arropa egitera jostunarengana joaten zen, Donostiara. Añorgan ere baziren jostunak gero. Amonak erosten zion tela askotan.

30. Zorriak eta sarna

- **Erref:** DON-100/066
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:32:41. **Bukatu:** 01:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Umetan, zorriz beteta ibiltzen ziren. Petrolioa jartzen zieten buruan. Sarna ere pasatu zuen, osabak soldadutzatik ekarri, eta kutsatuta. Orrazketa kontuak.

Transkripzioa

-Eta, illia-eta... pelukerira-ta orduan ez zan jungo...

-Bai, juten zan.

-Bai? Bai? Bazeon ohitura juteko pelukerira ala etxian...?

-Bai, baiño gero, baiño gero! Aurrena, aurrena zorriz betia! Ibiltzen giñan zorriz betiak, bai.

-Eta zorriyak kentzeko, ozpiña?

-Ozpiña ez, "petroleo" jartzen ziuten. Gabian jarri "petroleo", jartzen ziuten trapu bat hola...

-"Petroleo"?

-Bai, "petroleo" jartzen ziuten. Hua usaiya ohiyian. Hua usaiya!

-Eta juten zian zorriyak, ala...?

-Dan-danak ez, eske geo juten ziñan eskola o eozein... oatea zorriz betia etortzen ziñan. Partsak, zorrik... eta sarna ere bai pasa nun nik, sarna ´re! Osaba etorri zan gerratik, ta nola... hemetik [...] esan dizut... ba ze miña! Etorri zan sarnakin, eta hoi gure amonak eukitzen zun hua etorri bihar

zunian /bihartzunian/... soldauskatik etortzen zanian o o... eun bat pasatzea... eta jartzen zun, nola galipoten pote hoik?

-Bai.

-Ta sua jarri kalian, "o sea que" baratzen baztarrian, eta hua irakiten potasakin jartzen zun, eta han erropa kenduazi, han sartzen zitun erropak, eta garbituta jartze... baiño zorrik bizi-bizik ateatzen zian ostea.

-A bai, e? Baiña sarna hori ze da...?

-A, baiño sarna zan, bueno... juten, jun bihar izandu gendun... "Es verdad", nik danak nahastutzen ditut /nahastutzeitut/. Ba beida: ateatzen zizaizkan hola anpoiyak, anpoiyak. Dana pusakin. Pusa. Zorniakin.

-Bai.

-Dana-dana-dana, beteta, eta...

-Miña, orduan.

-Miña? Miña?

-Hori kontajiatu iten zan, ala?

-Bai, bai, "contajioso" zan. Eta juten, jun behar ziñun eunero anbulatoiyoa.

-Kura itea?

-Kura itea. Eta iten ziguen danak, berrik ateatzen zianean danak moztu, danak moztu. Ta geo pentalo jartzen zizuen, dan hau zeatu, bendakin jarri ta denborak, e. Ta azkure bat ta min bat!

-Joe...

-Ta ordun ´e soldauskatik ekarri zun osabak. Bai, bai.

-Osabak soldaduskatik?

-Bai.

-Eta illia moztu eta hori, etxian? Etxian, umetan eta? Illia moztu-ta goraizeekin etxian ingo zenuten...

-Bai, bai, bai. Hala ingo ziuten. Hala ingo ziuten, ni ez naiz goatzen.

-Eta gero ruluak eta holakuak-eta etxian jarriko zian baita ere... Edo plantxatu illia edo...

-Plantxatu? Bueno!

-Edo zerbait, alixatu...

-Bueno, ni, nik nun oso kiskurra, e. Eta illia luzia eamaten nun. Eta ez niyon kasoik iten. Burua garbitu, geo nola brillua ateatzen zun binagre pixkatekin ura jarri ta brillo earra ateatzen zizaiyon. Ez niyon kasoik iten.

-Eta zer zeon modan orduan? Moñua ala illiak gora edo nola?

-Moñuak... moñua ere bai. Moñua ere bai, baiña e... koleta, eta bestela "pues" boti... "este", illiak atzea botata.

-Eta ille sueltua ez?

-Bai, sueltua ere bai.

-Sueltua ere bai?

-Bai.

-Eta hola gora igota, hori gero?

-Bai, "el tupe" ere bai, tupe ere bai. Tupe ere bai.

-Hori ´re bai?

-"El tupe" ere bai.

-Eta hori norberak iten zun etxian? Pixkat kardatuta, ala ?

-Nik sekula ez nun /enun/ eaman, zeatik hainbeste ille nun, ez zizaian bate faltaik iten. Hartzen nun hola, jartzen nun hola aurea, eta hor ze batzuk jarri eta "ya está".

-"Ya está", ya harrotuta?

-Bai.

31. Orduko moda nolakoa zen

- Erref: DON-100/068

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:36:58. **Bukatu:** 01:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Belarritakoak, eraztunak... bazituen, baina ez gehiegi. Kan-kanak erabiltzen zituen. Almidoiarekin plantxatzen zuen. Gona motza jantzen zuten, eta eskotea ere bai. Urteak daramatza gonarik jantzi gabe. Galtzak jantzen hasi zenean, ezkutuan egiten zuen.

Transkripzioa

-Eta moda: belarritakuak eta eraztunak eta...

-Uuu, holako, honeaiño... eraztunak-eta bai. Baiña...

-Lepokuak eta bai, erabiltzen ziran orduan?

-Mmm, bai baiña ez gehiegi. Ni ez naiz izandu "chatarrera", e, sekula.

-Ez?

-Ez zait asko gustatu. Nitzan beste gauza batzuk... Illia, arropa...

-Takoia.

-Takoia, eee, bueno... eta geo nun, gaiña, oso zea ta... "can-can".
"Can-can", bakizu zer dan "can-can".

-Bai.

-Total, plantxa suan plantxa, eta seitun beztutzen zan, eta almidoiakin hua plantxazen. Hua garbitu, hua jarri eta plantxa bota eta ya marka iten ziyozun, beltz-beltza jarri eta segi! Geo jazten ziñun, sartzen ziñan autobusian eta "como un sandwich" uzten zizuen, ta haik danak jartzen hasi ta gero... bai.

-Lana hartzen zenuten, orduan.

-Bai.

-Eta lehen esan dezu minifalda edo bueno, ez? Gona motza jazten zenula zuk.

-Bai.

-Eta beste batzuk ere bai?

-Modan zeolako!

-Zure lagunak-eta, danak antzeko ibiltzen ziñaten?

-Bai, bai, bai. Gu bai, gu bai. Batzuk: "Es que con estas piernas yo no me atrevo. Yo con estas piernas...". "Pues yo? Que parecen botellas de-de-de... champan? Esta pantorrillera, pequeña pantorrillera", esaten nuna nik... bueno, baiña juten giñan.

-Eta eskotia eta hola bai ala...?

-Bai, bai, bai. Bai. Eskotia ez oain bezela, e.

-Ez, ez, oain...

-Ez. Hau itxiya ta bueno, hola bai, baiña ez hola oain...

-Beste, beste era batea jazten zan lehen, ez?

-Bai, bai, bai.

-Eta zu galtzarik-eta jantzi dezu iñoiz? Bueno, oain bai.

-Oain urtiak damazkit nik gonik ez detela jartzen. Dana, trajiak eta dana-dana-dana galtzakin.

-Baiña gaztetan ez zian erabiliko.

-Ez.

-Ez, ezta? Ez zeuden modan...

-Aurreneko ni galtzak jazten hasi nitzanian, jazten nitun aldameneko

etxian, aittak ez ikustiatik.

-Bai?

-Bai, hasi zianian jendia galtzakin-ta /da/, aittak ez ikustiatik, zeatikan bronka izango nun, eta han jazten nitzan.

-Orduan aita ez zan enteratzen.

-Ez.

-Bueno, esango ziyoten gero...

-Nik uste det /ustet/ baietz, nik uste det /ustet/ baietz. Gauza batzuk esaten zituen, eta nik horregatik esaten niyen: "Baiño neri esaiyazue, zeatik esaten ziyozue ne aittai? Zenek sufritzen du /sufritzeu/? Nik ez! Berak sufritzen du /sufritzeu/".

-Klaro, bai, bai.

32. Misioetako sermoiak

- **Erref:** DON-100/071
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:42:59. **Bukatu:** 01:43:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

Misioetako sermoi beldurgarriak. Agirretxe. Infernua.

33. Hilerokoa etorri, eta isilik

- **Erref:** DON-100/073
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:44:27. **Bukatu:** 01:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Hilerokoa etorri zitzaionean, zer zen ez zekien. Amonak esan zion. Animaliak bezala hasi ei ziren.</p>

Transkripzioa

-Sexua eta holako kontuei buruz ez zan...

-Buenoooo, buenooo, buenooo. Nik, e, zea, etorri zizaianian... nola esaten da /esatea/?

-Ze, hilerokua?

-Bai. "Bueno, hau zer da?", nik pentsatzen nun, eta iñork ez zian ezer esaten. Iñork. Eta nik esaten nun: "Biarren euna, hirugarren euna... Baten bati esan biharko ziot pa. Baten bati". Ta holaxe. Holaxe, baiño animalik bezela!

-Eta ez zeni... aitari ez zenyon...

-Iñork.

-...ez zenyon esan zuk?

-Ez, ez, ez.

-Ez, e? Ta nola jakin zenun hori normala zala?

-Ba amonak.

-Amonak?
-Amonai zerbait esan niyon, ta amonak.
-Amonak.
-Baiño denbora, e! Debora!
-Denbora batera, ausartu ziñanian galdetzen...
-Bai.
-...galdetzen, orduan, e...
-Bai. Eta gauza guzik hola. Animalik bezela hasi giñan gu.

34. Irratian, ezkutuko kateak entzuten

- **Erref:** DON-100/076
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:47:45. **Bukatu:** 01:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Irratirik ez zuten izan denbora askoan. Gauean Pasionaria entzuten egoten zen. Manolo Escobar entzuten zuten, Juanita Reina... Radio Pirenaica entzuten zuten, baxu jarrita.</p>

Transkripzioa

-Eta zuek radiyua... euki zenuten?
-Uf, baiño noiz? Noiz? Goatzen naiz gue anaiyak eosi zula radiyo berrin bat eta ekarri zian radiyo xar-xar bat eta urtetan eondu zan Txoko-ederren hua. Radiyua.
-Eta zer entzuten zenuten radiyuan?
-Bueno, nei, nik... gehiyena goatzen naizena radiyua... denboa askoik´e ez, e, aitzeko, baiño ni goatzen naiz gabian eoten nitzala "con la Pasionaria". Hua aitzen eoten nitzan gustoa. Gehiyena goatzen naizena radiyua, hoi. Eta geo bestela Manolo Escobar bezelako bazuk bazian, eta besteik ez zun, giñun aitzen. Juanita Reina ta...
-Orduan ezkutuko emisorak´e harrapatzen ibiltzen ziñaten?
-Bai, bai.
-Eta...
-Radio Pirinaica.
-Pirenaica?
-Bai. Bai.
-Eta hori oso baju ipini bihako zan, jendiak ez entzuteko, ala?
-Bai, baiño Txoko-ederren ez giñan asko bizi ta... Bai, baiño baju. Baju, hoixe bai.
-Badaezpada, ez?
-Bai, bai, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com